

Año XLIX. urtea

123 - 2017

Urtarrila - ekaina

Enero - junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV): lehen urratsak

Ane BERRO, Beatriz FERNÁNDEZ, Itziar ORBEGOZO

Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV): lehen urratsak

Euskera en Variación / Basque in Variation (BiV): primeros pasos

Basque in Variation (BiV): first steps

Ane BERRO

UMR 7023, CNRS / Paris 8 & Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
ane.berro@ehu.eus

Beatriz FERNÁNDEZ

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
beatriz.fernandez@ehu.eus

Itziar ORBEGOZO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
itziar.orbegozo@ehu.eus

Eskerrak eman nahi dizkiegu *FLV* aldizkariko zuzentzaile izengabeei lan honen lehen idatzaldiaz egindako zuzenketa, iruzkin eta iradokizun guztiengatik. Emaita hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 hitzarmenaren bitartez. Gainerakoan, lan honek ondoko instituzioen diru laguntza eta babesa jaso du: bate-tik Eusko Jaurlaritzarena «IT665-13» ikerketa proiektuaren bidez eta «POS_2015_1_0086» doktore osteko bekaren bidez; eta bestetik, Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarena «FFI2014-51878-P» ikerketa proiektuaren bidez eta «PIC 30/16» eta «PIC 168/16» ikertzaile kontratuen bidez.

Jasotze data: 2017/01/30. Behin-behineko onartze data: 2017/02/28. Behin-betiko onartze data: 2017/03/08.

LABURPENA

Lan honen helburua da *BiV* datu basearen nondik norakoak azaltzea. *BiV* euskal hizkeren arteko aldakortasun morfosintaktikoa erakusten duen sareko datu basea da. Galdeegi bidez eskuratutako ezaugarrien inguruko datuak jasotzen ditu eta aldakortasunaren banaketa erakustez gain, ezaugarrien deskribapena eta adibideak eskaintzen ditu. Hizkeren arteko aldakortasunaren airetiko ikuspegiak agerian uzten du, batetik, jasotako ezaugarri batzuek dialektologia lanetan egotzi zaien banaketa bertsua dutela, eta bestetik, zenbait ezaugarri espero zena baino eremu zabalagoa dutela. Horrez gain, begi bistan uzten du badirela Iparralde *ν* Hegoalde, edo Ekialde *ν* Mendebalde banaketa argia duten ezaugarriak.

Gako hitzak: datu basea; aldakortasun morfosintaktikoa; euskara; euskalkiak; hizkerak.

RESUMEN

El objetivo de este artículo es explicar las líneas generales de la base de datos *BiV*. *BiV* es una base de datos online que muestra la variación morfosintáctica de las variedades del euskera. Almacena datos obtenidos mediante cuestionarios, y además de mostrar la distribución de la variación, presenta las propiedades morfosintácticas analizadas. A vista de pájaro, *BiV* muestra que algunas propiedades analizadas tienen la misma distribución o una muy parecida a la atribuida en los trabajos de dialectología. También revela que otras presentan una extensión más amplia que la esperada. Por último, permite observar que ciertas propiedades tienen una distribución geográfica nítida dividida entre norte y sur, o este y oeste.

Palabras clave: base de datos; variación morfosintáctica; euskera; dialectos vascos; variedades.

ABSTRACT

The aim of this work is to explain the nature of *BiV* database. *BiV* is an online database on Basque morphosyntactic properties that have cross-dialectal variation. It stores the data obtained from questionnaires and displays the distribution of the variation. It also provides the description of each property and illustrative examples. The aerial view shows, on the one hand, that some properties have the same or very similar distribution as that attributed to them in dialectological works. On the other hand, it reveals that a few properties take a wider area than the one expected. Finally, it shows that certain properties have a clear division between two zones: North *ν*. South or East *ν*. West.

Keywords: Database; morfosyntactic variation; Basque; Basque dialects; varieties.

1. ATARIKOAK. 2. EUSKARA BARIAZIOAN / BASQUE IN VARIATION (BiV): EGITURA ETA ATALAK. 2.1. Ezaugarriak. 2.2. Gako hitzak. 2.3. Datu emaileak. 2.4. Hizkerak. 3. METODOLOGIA. 4. BiV ETA BESTELAKO DATU BASEAK. 4.1. Nazioarteko datu base bi, inspirazio iturri. 4.1.1. Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL). 4.1.2. The World Atlas of Language Structures (WALS). 4.2. *Basyque*, *Ahotsak* eta *Euskalkiak*, euskararen aldakortasuna. 4.3. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. 5. BiV: AIRETIKO IKUSPEGIA. 5.1. Egotzi zaien banaketa bera edo bertsua duten ezaugarriak. 5.2. Aitor-tu zaiena baino eremu handiagoa duten ezaugarriak. 5.3. Bi eremutan banatzen diren ezaugarriak: Iparraldea *v* Hegoaldea edo Ekialdea *v* Mendebaldea. 6. ONDORIOAK ETA GERORA BEGIRA. 7. ERREFERENTZIAK. 8. ERANSKINA.

1. ATARIKOAK

Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) euskalki eta euskal hizkeren arteko aldakortasun morfosintaktikoa erakusten duen datu base bat da. Datu baseak, ezaugarri morfosintaktiko sorta baten inguruko galdetegietatik jasotako datuak biltzen ditu. Ezaugarriek erakuts ditzaketen balioak bi baino ez dira, *bai* edo *ez*, eta berde eta gorri koloreez jasota daude mapan, hurrenez hurren. Datu emaileak kasu gehienetan euskal hizkera bateko jatorrizko hiztunak dira, edo bestela, hizkera bateko adituak. BiV sarean dago eskura, sarbide librea du, eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eman zuen argitara 2016ko abenduan bere lehen bertsioan. Bi hizkuntzatan dago eskura, euskaraz eta ingelesez.

BiVn nazioarteko bi datu base sintaktiko izan ditu inspirazio iturri, batetik *Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL)* eta bestetik *The World Atlas of Linguistic Structures (WALS)*. Lanaren fase honetan, 44 ezaugarri morfosintaktiko aztertu dira 28 hizkeratan. Ezaugarri hauek 7 eremutan banatuta daude: kasu eta komunztadura, aditz laguntzailearen alternantzia, aspektua, postposizioak, postposizioak (lokatiboak), iragangaiztasun eta iragankortasuna, eta menderakuntza.

Lan honetan, hauek izango dira helburu nagusiak: lehenik eta behin, BiVren egitura eta atalak deskribatuko ditugu –(2) atala–; bigarrenik, datu basea osatzeko erabili dugun metodologia azalduko dugu –(3) atala–; hirugarrenik, nazioarteko beste bi datu baserekin konparatuko dugu, SSWL eta WALSein hain zuzen, eta Euskal Herrian euskararen aldakortasunarekin zerikusia duten *Basyque* datu basearekin, *Ahotsak* eta *Euskalkiak* webguneekin eta Euskaltzaindiaren *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*,

EHHArekin, -(4) atala-; laugarrenik, BiVk euskararen aldakortasunaz erakusten digun airetiko ikuspegiaren berri laburra jasoko dugu -(5) atala-, eta bosgarren eta azkenik, ondorioak jaso eta gerora begirako lanaren ardatzak zehaztuko ditugu laburki -(6) atala¹.

2. EUSKARA BARIAZIOAN / BASQUE IN VARIATION (BiV): EGITURA ETA ATALAK

Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) izeneko datu baseak, euskalki eta euskal hizkeren aldakortasun morfosintaktikoa erakusten du. Horretarako, ezaugarri sorta bat zehaztu dugu eta bere araberrako galdetegiak egin ditugu euskal hizkera batzuetan. Galdetegi horietatik erdietsitako datuak dira datu basean jasotzen ditugunak.

Datu base honek, atarikoan esan dugun bezala, sarbide librea du eta beraz, edozein erabiltzaileraren eskura dago. Oso intuitiboa da, egitura argia du, eta nahikoa erraz erabil daiteke norberaren sen hutsarekin. Dena dela, BiVren balizko erabiltzailea hizkuntzalaritzan edo gramatikan *iniziatua* izan behar da. Guk, behintzat, erabiltzaile iniziatu bat izan dugu gogoan datu basea diseinatzerakoan. Adibidez, ezaugarriak deskribatzerakoan, baliatu ditugun hitz teknikoak ezagunak izango zaizkio hizkuntzalaritzan trebatzen hasia den edozein erabiltzailerari, baina ezezagunak beharbada bestelako erabiltzaile bati. Beste horrenbeste gertatuko zaio gako hitzekin edo adibideen glo-sak irakurtzerakoan. Laburdurak eurak eskura izanik ere -horretarako erlaitz beregain bat baitago-, adibideen glosetara ohituta ez dagoenak ez ditu berehalakoan behintzat ulertuko, horretarako eskarmenturik ez duelako. Ez du horrek esan nahi datu basera hurreratzen den erabiltzailea halabeharrez hizkuntzalaria izan behar denik, baina jomuga izan dugun erabiltzaileak, dudarik gabe, hizkuntzalaritzaren oinarriak zein diren badaki. Horretan, esaterako, *Ahotsak* (Badihardugu Euskara Elkarte, 2003) eta baita, neurri batean, Koldo Zuazoren (2015) *Euskalkiak* webgunea ez bezalakoa da gurea. Kontuan izan behar da, bestalde, BiVren erabiltzailea ez dela nahitaez euskalduna izan behar. Datu basea ingelesez jarri dugu eskura, gogoan izanik asko direla nazioartean euskararen izaeran oro har eta aldakortasunean bereziki interesa duten hizkuntzalaria-riak, eta alderdi horretatik, euskararako leiho bat da BiV. Lan tekniko bat da, beraz, eta horri dagokionez, nazioarteko beste datu base ezagun birekin lerratzen da, batetik *Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL)* eta bestetik *The World Atlas of Linguistic Structures (WALS)*. Biekin zordun da gure lana, 4. atalean erakutsiko dugunez. Hori baino lehenago, ondoko lerroetan, BiVren atalak aztertuko ditugu banaka-banaka, bere xehetasunak deskribatuz eta behar den guztietan, adibideak emanez.

1 Hauexek dira lanean zehar mintzagai izango ditugun datu baseen edo webguneen estekak: *Ahotsak*, ahotsak.eus; *Basyque*, <http://ixa2.si.ehu.es/atlas2/index.php?lang=eu>; *Euskalkiak*, euskalkiak.eus; *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)*, http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu; *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)*, <http://basdisyn.net/Bas&Be/biv/>; *Syntactic Structures of the World's Languages*, <http://sswl.railsplayground.net>; *World Atlas of Linguistic Structures (WALS)*, <http://wals.info>

2.1. Ezaugarriak

BiVren egituran, menu elementu nagusietako bat ezaugarriei dagokie. *Ezaugarriak*, morfosintaktikoak denak, 44 dira orotara –ikus eranskina– eta 7 eremutan banatuta daude, hots, kasua eta komunztadura (16 ezaugarri), aditz laguntzailearen alternantzia (5 ezaugarri), aspektua (5 ezaugarri), postposizioak (4 ezaugarri), postposizioak (lokatiboak) (5 ezaugarri), iragangaiztasuna eta iragankortasuna (5 ezaugarri) eta menderakuntza (4 ezaugarri). Ezaugarri hauek guztiek aldakortasuna erakusten dute euskaraz. Hala, ezaugarrietako bakoitzean, bi eredu nagusi bereizi ditugu, batetik *Eredu orokorra* deritzoguna eta bestetik *Hizkera eredu*a. Eredu orokorra deitu diogu euskaraz orokorturik dagoen ereduari, eta hizkera eredu

a, berriz, eredu orokorretik bereizi eta hizkera batzuetan lekukotzen denari. Ezaugarri batzuetan, *Hizkera eredu*aren barruan, *Azpi-hizkera eredu*a ere bereizi da, baldin eta hizkera eremuan, eredu bat baino gehiago lekukotu bada.

Ezaugarriak atalaren xehetasunak ikus ditzagun jarraian adibide bat emanez. 17. ezaugarriaz baliatuko gara horretarako:

17. Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: -gi- (v -za-)

Ezaugarriaren deskribapenaErantzunakLaburdurak

Eredu orokorra. Indikatiboz kanpo, -za- erroa ageri da forma (di)trantsitiboetan, indikatiboko -u- (**edun*) erroaren ordez.

(1) egin dezagun
egin (3ABS).ZA.1PL.ERG.COMP

*Hizkera eredu*a. Hizkera batzuetan, -gi- (ustez, *egin*) erroak -za- ordezkatu du.

(2) egin dagigun
egin (3ABS).GI.1PL.ERG.COMP

Honen berri non: Mendebaldeko hizkerak (Zuazo 2013: 49).

Sailkapena: ADITZ LAGUNTZAILEAREN ALTERNANTZIA
Gako hitzak: [aditz laguntzaile alternantzia](#), [erro alternantzia](#), [modua](#)
Oharrak:
-za- batez ere erdialdeko eta ekialdeko hizketeran lekukotzen den arren, historikoki orokorra izan zen euskalki guztietan (Mixelena 1960).
Aipamenak:
Bonaparte (1869), Mixelena (1960), Euskaltzaindia (1987), Hualde (2003), Zuazo (2013: 49), Hualde (2016)

1. irudia. 17. Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo ezaugarriaren deskribapena eta mapa.

Has gaitezen ezaugarriaren deituratik bertatik. Batzuetan, benetako deitura da, hala nola, 5. *Me-lui murriztapena* edo 7. *Datiboaren lekualdatzea*. Deitura horiek ezagunak dira (euskal) hizkuntzalaritzan, eta eremuan inizatua den orok ezagutzen ditu. Beste batzuetan, berriz, ezaugarria zein den zehazten du, 17.ak bezala. Kasu

Fontes Linguae Vasconum (FLV), 123, urtarrila-ekaina, 2017, 7-28

ISSN: 0046-435X ISSN-e: 2530-5816

11

honetan, ez dago ezaugarriari dagokion deitura ezaguna, ezaugarriaren deskribapen laburra baino. Bestalde, ezaugarrien deituraren eskuinetara eta bi punturen ostean, mintzagai darabilgun forma agertzen da beti. Forma hori da, hain zuzen, hizkera eredu-*duan* lekukotzen dena eta parentesi artean dator gero eredu orokorrekoa. Adibidez, 17. ezaugarriaren deituraren ostean, *-gi-*, agertzen da, hau da, hizkera batzuetan lekukotzen dena *egin dagigun* bezalako aditz forma analitikoetan, eta parentesi artean *v(ersus)* hizkia aurrean duela *-za-*, euskaraz orokortua dagoen forma eta *egin dezagun* bezalakoetan jasotzen dena.

1. irudian ikus daitekeenez, ezaugarriaren deitुरapean euskararen mapa jasotzen da. Mapa horretan, bi kolore kode darabilgu, berdea bat, hizkera eredu lekukotzen duten herrietan, eta gorria bestea, hizkera eredu hori ez duena (eta hortaz, eredu orokorrari lotzen zaiona). Kolore horien gainean klikatuz gero, herrien izenak bistaratuko dira maparen gainean. Kontuan izan herrien izenak euskaraz bistartzeko (eta ez gatzelaniaz), nabigatzailea ere euskaraz hautaturik egon behar dela.

Maparen azpian, bestalde, hiru erlaitz daude eskura, ezkerretik hasi eta eskuinetara, *Ezaugarriaren deskribapena*, *Erantzunak* eta *Laburdurak*. Has gaitezen, *Ezaugarriaren deskribapena* erlaitzetik (1. irudia).

Ezaugarriaren deskribapena erlaitzak oso informazio soilu du, ezaugarria berehalakoan identifikatzeko beste eta ez gehiago. Ezaugarria, modu ahal den eta soilenaz ematea, nahita egindako hautua da, kontuan izanda gure asmoa ez dela ezaugarriaren xehetasunetan sakontzea, bera modu erraz eta azkar batean ezagutzea baino. Deskribapen horretan, *Eredu orokorra* jasotzen da lehen lerroan, hots, euskaraz orokortua dagoena, eta horri dagokio ondoren datorren adibidea. Adibideak bere azpiko glosa dakar laburdurekin, hizkuntzalaritzan ohi den bezala *-berehalakoan hitz egingo dugu glosatze irizpideez-*. Glosa bera ere ahal den eta soilen ematen saiatu gara. Eredu orokorraren azpian, *Hizkera eredu*a erakusten da, hots, eredu orokorretik bereizi eta hizkera jakinetan lekukotzen dena. Honetan ere, adibidea eskaini da glosarekin batera.

Azpimarratu nahi genuke *Hizkera eredu*a erakusteko adibideak jasotzen duela beti dena delako ezaugarriaren *gutxieneko agerraldia*, hots, ezaugarri hori erakusten duten hizkera guztiek partekatzen dutena. 17. ezaugarria ez da esanguratsua honi dagokionez, baina beste ezaugarri batzuetan, ondo jakin behar da zein den bere gutxieneko agerraldia, horren arabera izango baita datu emailearen erantzuna. Esate baterako, 7. *Datiboaren lekualdatzea* ezaugarriari dagokionez, hizkeretako batzuetan, Lekeition adibidez, *eman nauzu* lekukotzen da, datiboaren lekualdatzearen gutxieneko agerraldia, baina ez *eman zaitut*, hizkera batzuetan bai baina beste batzuetan lekukotzen ez dena. Izan ere, pertsonaren arabera parametrotzat aukerak ditu egiturak (lehen pertsona *v* bigarren pertsona). Hori dela eta, *eman nauzu* formaz galdetu zaie datu emailei eta ez *eman zaitut* formaz (*eman zaitut* formaren gainean galdera egin balitzaio Lekeitioko datu emaileari, ez balioa emango ziokeen ezaugarriari). Ezaugarrien gutxieneko agerraldia zein den erabakitzeak berebiziko garrantzia izan du, beraz, ezaugarria deskribatzerakoan ez ezik, galdetegiak osatzerakoan ere.

Deskribapena osatzeko, *Honen berri non* deritzan lerroa dago. Kasu honetan, ezaugarri hori literaturan nork eta non jaso den adierazi dugu, alegia. Aztergai darabilgun 17. ezaugarriari dagokionez, Mendebaldeko hizkeretan lekukotzen dira *egin dagigun* bezalakoak, Zuazo (2013) lanaren arabera.

Azkenik, eta marra batez bereizirik, *Sailkapena*, *Gako hitzak*, *Oharrak* eta *Aipamenak* daude. *Sailkapenak* adierazten du arakatu diren 7 eremuetatik, hots, kasua eta komunztadura, eta abarretatik zeinetan sailkaturik dagoen ezaugarria (aditz laguntzailearen alternantzia kasu honetan). *Gako hitzak* ezaugarriarekin zerikusia duten hitz esanguratsuenak dira, eta euren gainean klikatuz gero, erabiltzailea *Gako hitzak*, hots, menuko elementu nagusietako batera, zuzentzen da. Beste alde batetik, *Oharrak* askotarikoak dira eta zerbaiten berri laburra ematen dute. Ez dira halabeharrez agertzen ezaugarri guztien deskribapenean. *Aipamenak*, azkenik, gaia jorratzen duten oinarriko zenbait lan dira. Ez dira inondik inora literaturan gaia aipatu duten ez guztiak ez gehienak. Kontuan izan, adibidez, mintzagai dugun 17. bezalako ezaugarriak ia edozein gramatikatan eta edozein ikuspuntu teoriko darabilten hizkuntzalaritza lanetan jaso direla. Hortaz, hor, gure asmoa ez da zehaztasun askorik ematea (gutxienez lanaren fase honetan), zenbait lan esanguratsu aipatzea baino.

Ezaugarriaren deskribapena erlaitzaren eskuinetara, *Erantzunak* erlaitza dago. Bertan ageri dira arakatu ditugun hizkera guztiak ezker zutabea, *bai* edo *ez* bi balioetako batekin batera (erdiko zutabea). Baiezkoa da hizkera eredua lekukotzen duena eta berdez ageri dena mapan; gorria, berriz, hizkera eredua lekukotzen ez duena eta gorritz jasotzen dena mapan. Balioaren eskuineko zutabea, datu emailearen izen-abizenak jasotzen dira.

Ezaugarriaren deskribapena

Erantzunak

Laburdurak

(2)

Hizkera	Balioa	Datu emailea
<u>Aramaio</u>	Bai	Txipi Ormaetxea
<u>Artea</u>	Bai	Igor Estankona
<u>Azpeitia</u>	Bai	Patxi Goenaga
<u>Beizama</u>	Bai	Lourdes Otaegi
<u>Bergara</u>	Bai	Alexander Artzelus
<u>Elgoibar</u>	Bai	Ane Odria
<u>Gernika</u>	Bai	Alaine Barruetaña
<u>Getxo</u>	Bai	Xabier Bilbao

2. irudia. 17. *Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo* ezaugarriaren gaineko erantzun batzuk.

Erantzunak erlaintzaren eskuinetara, azkenik, *Laburdurak* erlaitza dago. Laburdura horiek *Leipzigeko Glosatze Arauak* (ing. *Leipzig Glossing Rules*) jarraitzen dituzte, hein batean. Arauok Max Planck Institutuko Hizkuntzalaritza Saileko Bernard Comrie eta Martin Haspelmath irakasleek proposatu dituzte Leipzigeko Unibertsitateko Balthasar Bickel-ekin batera. Arauek adibideen azpiko glosak nola eman iradokitzen dute eta laburduren *hiztegia* ere jasotzen dute. Hiztegi horretako laburdurak dira, hain zuzen, gure lanean jaso ditugunak. Kasu batzuetan, guk sortu ditugu laburdurak, hiztegian agertzen ez direlako, esate baterako, PROS (ing. *prospective*) erabili dugu *-en* eta *-ko* morfema prospektiboak adierazteko, eta BN eta UNBN (ing. *bound* eta *unbound*) mugatu eta mugagabeak adierazteko, hurrenez hurren. Laburdura horiek, datu basearen bi bertsioetan, hots, euskaraz zein ingelesez erabili ditugu salbuespenik gabe. Laburdurez gain, ezaugarrietan ageri diren adibideak arau horien arabera glosaturik daude.

2.2. Gako hitzak

Datu basea arakatzeko, ezaugarriez ez ezik, gako hitzez ere balia daiteke erabiltzaileak. Horretarako *Gako hitzak* izeneko menu elementua du eskura erabiltzaileak, orain aztertu berri dugun *Ezaugarriak* elementuaren eskuinetara.

Gako hitzak alfabetikoki ordenatuta daude. Horietako batzuk oso oinarritzko gertakari linguistikoei dagozkie, hala nola, 2. *pertsona* edo *aditza*; beste batzuk, berriz, fenomeno edo egitura konplexuagoei, adibidez, *ergatiboaren lekualdatzea* edo *datiboaren lekualdatzea*. Gako hitz bakoitzaren azpian aurkituko ditu erabiltzaileak harekin harremanetan dauden ezaugarriak. Adibidez, *ergatibotasuna* gako hitzaren azpian, hauexek dira ageri diren ezaugarriak:

ergatibotasuna

1. Zenbait aditz inergatibotako subjektu absolutiboak: *borrokatu naiz* (v *dut*)
39. *Ari* progresiboa subjektu ergatibo eta **edun* aditz laguntzaile iragankorrek: *ari dut* (v *ari naiz*)
40. Perifrasi progresiboak: *ibili, egon jardun, erauntsi* (v *ari izan*)

3. irudia. *Ergatibotasuna* gako hitza eta dagozkion ezaugarriak.

Deitura bat baino gehiago dauden kasuetan, biak jaso dira gako hitzen artean, adibidez, *Me-lui murriztapenak* nahiz *Pertsona-Kasuaren Mugak* gako hitzek 5. *Me-lui murriztapena* (*etorri natzaizu*) ezaugarriara garamatzate.

2.3. Datu emaileak

Menuko elementuen artean, ezkerretatik hasita laugarrena datu emaileei dagokie. Elementu horretan klikatuz gero, datu emailearen izen-abizenak, afiliazioa, rola eta hizkera bistaratuko dira.

Rolari dagokionez, gure datu emaile gehienak hizkera jakin bateko jatorrizko hiztunak dira, alegia, hizkera jakin bat dute *ama hizkera*. Alabaina, dialektologia klasikoan ez be-

zala, datu emaileak nagusiki, nahiz eta ez bakarrik, hizkuntza adituak dira, hau da, edo hizkuntzalariak dira edo hizkuntzarekin lan egiten dute. Horregatik, askoren afiliazioak Euskal Herriko ikergune nagusiak dira, hala nola, UPV/EHU, CNRS-IKER UMR 5478, Univ. de Pau et des Pays de L'Adour, edo Nafarroako Unibertsitate Publikoa beste batzuen artean.

Hautu hau ere nahita egin dago, eta beste datu base batzuetako bera da, adibidez, SSWL edo *The Electronic World Atlas of Varieties of English (eWave)* (Kortmann & Lunkenheimer, 2013) datu baseetako datu emaileak ere hizkuntzalariak dira.

Datu emaileen artean badira, bestalde, hizkuntza adituak izan gabe, jatorrizko hitzuna direnak, edo alderantziz, hizkera jakin bateko jatorrizko hitzuna izan gabe, hizkera horretan adituak direnak. Rol zutabearen azpian aurkituko ditu erabiltzaileak xehetasun hauek.

2.4. Hizkerak

Menuan, *Hizkerak* elementua dator gero. Bost zutabe nagusi bistaratu daitezke gune honetan, ezkerretatik hasita eta eskuinetara: *Herria*, *BiV kodea*, *Euskalkia*, *Azpieuskalkia* eta *Hizkera*. Hizkeren sailkapenari dagokionez, Zuazori (2008, 2013, 2015) jarraitu diogu bere azken lanetan bai hizkeren deituetan (euskaraz nahiz ingelesez) bai sailkapenean bertan.

Beste alde batetik, herri bakoitzak BiV kode bat du datu basearen barruan identifikatzeko bidea ematen diguna. Kodearen lehen hizkia herri hizkeraren lurralde historikoari dagokio (e.g. *G* Gipuzkoarako, *N* Nafarroarako) eta, ondoren, marratxo batez bereizirik, herriaren lehen hiru hizkiak ageri dira: *G-bei* Beizamako hizkera adierazteko, *N-urd* Urdiaingoa adierazteko etab.

Herriaren izena bera, azkenik, esteka bat da eta bertatik, hizkerari dagozkion emaitza guztiak batera bistaratu daitezke zerrendaturik. Adibideak *Hizkera ereduari* dagozkio salbuespenik gabe eta beren ezkerretara, *bai* edo *ez* ageri da, berde eta gorri koloreez hurrenez hurren. Adibidearen lehen zenbakian klikatuz gero, *Ezaugarriaren deskribapenarekin* egiten da lotura.

3. METODOLOGIA

BiVren lehen fase honek urte eta erdiko iraupena izan du orotara, eta lau hizkuntzalarik eta informatikari batek parte hartu dugu prozesuan. Lehen fase honetan, 28 herri hizkera hautatu eta hizkera horietako datu emaile bana elkarrizketatu ditugu. Zuazoren (2008, 2013, 2015) euskalkien banaketan oinarrituz, lagin adierazgarria osatzen saiatu gara, hizkeren proportzioa kontuan hartuz. Mendebaldeko 11 hizkera aukeratu ditugu, 7 erdialdekoak, 6 nafar, 3 nafar-lapurtar eta zuberotar 1.

Bestetik, datuak lortzeko 96 itemeko galdetegi bat erabili dugu. Galdetegia, bat bera izan da datu emaile guztientzat eta galdeketa, aurrez aurreko elkarrizketa bidez egin

ditugu. Datu baseko 44 ezaugarriei buruzkoak izan dira galderak, eta ezaugarriak ongi zehaztu ahal izateko, 96 itemen inguruan galdetu zaie datu emaileei. Batzuetan, esaldi osoen gainean egin da galdera (20. ezaugarrian, '*Niri marmitakoa gustatzen nau*'), eta beste batzuetan, forma laburragoen gainean (32. ezaugarrian, '*Ene ondorik*'). Inkestatzaileak itema irakurri eta datu emaile bakoitzak *bai* edo *ez* erantzuna eman du, ezaugarri hori bere hizkeran lekukotzen den edo ez adierazteko. Inkestatzaileak idatziz jaso ditu erantzunak, baina horretaz gain, elkarrizketa guztiak audioz grabatu dira. Beraz, erantzunak *bai* edo *ez* balioen bidez jaso dira, eta ez, aldiz, forma zehatzen bidez. Kontuan izan, BiVk duen xede nagusia lortzeko, hau da, ezaugarri morfosintaktiko bat hizkera batean lekukotzen ote den jakiteko, printzipioz nahikoa dela *bai* edo *ez* erantzuna jasotzearekin. Ongi ohartzen gara hori egiterakoan, forma zehatzen ñabardura morfofonologiko edo lexikoak galtzen direla, baina ordainean, ezaugarriaren beraren irudi argi eta soilagoa jasotzen dugu. Bestalde, *bailez* balioak izateak aukera ematen du hizkeren arteko konparazioa erraz eta berehalakoan egiteko, eta horrek berebiziko garrantzia du mikroaldakortasuna, hots, dialekto eta hizkeren arteko aldakortasuna aztertzen duten ikertzaileentzat.

Datu emaileei dagokienez, momentuz 28 hiztuni egin zaie galdeketa, eta bakoitzak bere hizkeraren berri eman du. Dialektologia lanetan ez bezala, hiztunak hautatzerakoan ez dugu jaso ohikoa den soslaiko datu emailerik –ikus, adibidez, 4.3 atalean, *EHHA*eko hautuaz esandakoa–. Oso bestela, gure datu emaile gehienak hizkuntzalariak edo hizkuntzan adituak dira. Horrek ez du esan nahi, noski, dena delako hizkeran jatorrizko hiztunak ez direnik, horregatik (edo hizkera jakin bateko adituak izateagatik) hautatu ditugulako, hain zuzen ere. Euskara batuak, gure estandarrak, berrogeita hamar urtetik gora dituen honetan, hizkera duten hiztun alfabetatuak aukeratu ditugu guk. Ez dugu uste hiztun horien jatorritasuna ezbaian jarriko duenik inork, eta jatorrizko hiztunak izateaz gain, euskara batua eta herri hizkera argiro bereizten dituzten datu emaileak ere izan ohi dira. Azkenik, honelako datu emaileak izatearen beste abantaila bat da galdetegi morfosintaktiko baten helburua eta xehetasunak erraz ulertzen dituztela, eta hori lagungarria da ezaugarrien gaineko ereduak, izan orokorra izan hizkera ereduak, identifikatzerakoan.

4. BIV ETA BESTELAKO DATU BASEAK

BiV datu basea ez da kasu bakartu bat hizkuntzalaritzan ez hemen ezta kanpoan ere. Urteotan asko dira sarean plazaratu diren proiektu interesgarriak, eta euretariko askok nola edo hala hizkuntza aldakortasunarekin dute zerikusia. Euskal Herrian bereziki aipatzekoa da *Ahotsak* Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzen dituenak –ikus 4.2 atala–, baina ikusiko dugunez, BiVk guztiz bestelako xedea eta metodologia ditu. Kanpora begira, bestalde, gorago ere aipatu dugun *Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL)*, Ameriketako Estatu Batuetan sortu eta garatutako datu basea dugu, BiVren inspirazio iturria nagusia dena.

Atal honetan, sareko datu base edo proiektu horietatik zenbait aipatu eta BiVrekin alderatuko ditugu, gure datu baseak sareko unibertso honetan duen lekua egokiro koka dezagun.

4.1. Nazioarteko datu base bi, inspirazio iturri

Nazioartean bi dira BiVren inspirazio iturriak, SSWL eta WALs alegia. Bietarik, lehenarekin da batez ere zordun, baina bestetik ere edan du. Ikus dezagun zergatik.

4.1.1. *Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL)*

Dudarik gabe, SSWL da sarean eskura dauden datu baseetatik gureari ondoen lotzen zaiona, edo hobeto esanda, gure datu basea SSWLekin da batez ere zordun. SSWLen editore seniorra Kaliforniako Unibertsitateko (UCLA) Hilda Koopman da eta Richard S. Kayne eta Chris Collins, New Yorkeko Unibertsitateko (NYU) irakasleak dira datu basearen sortzaileak. Kayne irakaslea bera da BiVren aholkularia (Euskaltzaindiko Patxi Goena-garekin batera). Gramatika Sortzaile eremuko sona handiko ikertzaileak dira hirurak.

SSWLek hizkuntzak hartzen ditu abiaburu (ez hizkerak), baina BiV bezala, ezaugarri sorta batetik abiatzen da eta ezaugarri horien arabera zehazten du hizkuntza horren izaera, baita hizkuntzatik hizkuntzara dagoen aldea ere. Ezaugarriak morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak dira SSWLen, eta BiVn, gogoratuko denez, morfologiko eta sintaktikoak baino ez. Bestalde, antzekoak dira ezaugarrien definizio eta zehaztapenak. Ezaugarria modu soil batez definitzen da SSWLen eta *yes/no (bai/ez)* balioak erakusten dituzten hizkuntzetako adibideak eskaintzen dira. Gogoratu BiVn, *Hizkera eredu* duen hizkera dela *bai* balioa jasotzen duena eta *ez* balioa, berriz, hizkera eredu horri lotzen ez zaiona, eta beraz, *Eredu orokorra* jarraitzen duena. Datuak, beraz, BiVn bezala, *bai/ez* kontrako balioak baino ez dira. Alde horretatik, SSWLen ez dira jasotzen hizkuntza bateko edo besteko adibide zehatzak (ezaugarriak erakusteko adibideetatik aparte), ezta hizkera bateko edo bestekoak ere BiVn.

Gainerakoan, SSWLen oraingo bertsioa alde kuantitatiboan bereizten da BiVtik. Kontuan izan beharra dago datu base hura 2009an abiarazi zela eta hortaz, zortzi urteko ibilbidea duela dagoeneko. Gurea, aldiz, jaio berria da, eta horrek erakusten du bien artean dagoen alde numerikoa. Adibidez, ezaugarriak 148 dira SSWLen eta BiVn 44 baino ez; hizkuntzak 274 dira SSWLen eta BiVko hizkerak, aldiz, 28. Dudarik gabe, aldea dago. Alabaina, proiektu hauek guztiak urratsez urrats eraikiz doaz eta halaxe eraiki eta handitu da urteotan SSWL, hasierako fasean txiki samarra zena oraingoaren aldean. Gurea ere urte batzuk barru, beste horrenbeste beharbada ez, baina nahikoa haziko delakoan gaude.

Azkenik, BiVko badu alderdi bat SSWLek ez duena: mapak. Mapak, alabaina, nazioarteko beste datu base ezagun batean jasotzen dira, ondoren ikusiko dugunez.

4.1.2. *The World Atlas of Language Structures (WALS)*

BiVko nazioarteko beste datu base bat ere izan du oinarri: Matthew S. Dryer eta Martin Haspelmath-ek 2013an editatutako *The World Atlas of Language Structures (WALS)* izenekoa. SSWL ez bezala, zeina dagoeneko esan dugun bezala Gramatika Sortzaileko adituek sortu eta garatu duten, WALS, Hizkuntza Tipologiaren eremuko adituen lanari esker egin da, Leipzigeke Max Planck Institutu prestigioetsuaren babespean. Orotara, 55 dira WALSen parte hartu duten adituak.

WALSek ere ezaugarriak arakatzen ditu (*Features* deiturapeko menu elementua), eta ezaugarri horiek guztiek hizkuntza arteko aldakortasuna erakusten dute. Euren artean, fonologiari eta lexikoari dagozkien ezaugarriak ere jasotzen dira, SSWLen eta BiVn ez bezala, eta ezaugarriei ere esleitzen zaizkien balioak, ez dira kontrako bi balio bakarrik (*bai/ez*), askotariko balioak baino. Ezaugarri horiek, orain arte aztergai izan ditugun bi datu baseetan ez bezala, ez dira jaso datu emaille jakinei galderak eginez. Oso bestela, hizkuntzen deskribapenetan edo besterik gabe gramatiketan jaso diren ezaugarrietan oinarritzen da. Horrek badu, gure ustez, desabantaila bat beste datu base biekiko: batzuetan dena delako ezaugarriari dagokion balioa zalantzatakoa da eta ezin daiteke berehalakoan jakin zein datu zerabilen gogoan egileak dena delako egitura hizkuntza batean lekukotzen dela esaterakoan.

Adibidez, WALSen 108A ezaugarria antipasiboei eskainita dago. Euskarari dagokionez, antipasiboa duen hizkuntzatzat jotzen da euskara eta *Oblique patient* balioa esleitzen zaio (*zehir jasailea* dei genezakeena euskaraz), hots, jasaile rol-tematikoa duen sintagma zehir kasu batekin edo, nahiago bada, postposizio batekin markatzen duen hizkuntzatzat jotzen da. Euskaraz antipasiborik ba ote dugun argitzeak eztabaidara eramán gaitzake eta ez da hau eztabaida horretarako abagune aproposa. Euskalaritzan gaia erabili denean, egitura bat baino gehiago izan dira aztergai, eta WALSen iturria, kasu honetan, Mejías-Bikandi (1999) izan da. Euskaraz zehir jasailea balioko antipasiboa badu, zein dira balio hori berresten duten datuak? Ez dakigu, iturburura jo ezean behintzat, hots, datu basetik aparte. Beste alde batetik, ezaugarri jakin bati dagozkion ereduak datu zehatzak zein diren jakitea eta datu emailleei, datu horien gainean zehazki galdetzeak bi abantaila ditu: batetik, erabiltzaileak badaki zehatz-mehatz zein diren aztergai diren datuak (deiturak gorabehera), eta bestetik, hizkeretako emaitzak konparagarriak dira. *Bai/ez* balioek ere errazten dute hizkeren arteko konparazioa.

Dena dela, hau bezalako ezberdintasun garrantzitsuak alde batera utzita, WALSen zenbait ezaugarri ditu BiVk eta gerora ere izatea nahi genuke. Lehenik eta behin, mapak jasotzen ditu (SSWLek ez bezala), eta mapa horietan kokatzen ditu ezaugarriak dituzten balioak. Balioak askotarikoak direnez, konplexuagoak dira balioen kodeak (irudi geometrikoak eta kodeak konbinatzen dituztenak), baina oinarrian, WALSek eta BiVk mapetara daramatzate datuak. Ezaugarrien irudi geografiko zehatza eskaintzen digute mapek eta irudi horrek airetiko ikuspegia ematen digu –ikus 5. atala–. Bigarrenik, WALSek datu base bibliografiko bat du, halaberharrez, iturriak eurak bibliografia horretan jasota dauden lanak direlako. BiVk ez du halako iturbururik eta ez du izango gerora ere, baina beharrezkoa deritzogu datu base bibliografiko osoago bat eskaintzeari, bertsio honetan eskura dagoen aipamen zerrenda laburrak harantzago. Datu base bibliografiko hori, hurrengo bi urteotan garatuko da hein batean –ikus 6. atala–. Hirugarrenik, ezaugarriek kapitulu beregainak dituzte, ez oso luzeak, tamainakoak, datu baseko 55 egileetako bakoitzak idatzitakoak. Antipasiboei buruzkoa, adibidez, Polinsky-k (2013) idatzia da. BiVk zein SSWLek ezaugarrien deskribapenen erlaitzean eskaintzen dutena baino luzeagoak dira. Hau ere gerora egin nahi genuke BiVn, nahiz eta helburu hori ez den epe laburrekoa, luzera begirakoa baino.

4.2. *Basyque, Ahotsak eta Euskalkiak*, euskararen aldakortasuna

Lehen aipatu dugun bezala, badira gurean euskararen aldakortasuna aztertzen duten sareko beste gune batzuk, hala nola, *Basyque*, *Ahotsak* eta *Euskalkiak*. Basyque IKER-UMR 5478 zentroak eta UPV/EHuko IXA taldeak elkarlanean sortutako aplikazioa da eta, aipatu berri ditugun hiru guneetatik, BiVk dituen helburuetatik hurbilen dagoena da. Basyqueren xede nagusia da euskarak hizkeraz hizkera daukan aldakortasun sintaktikoa aztertzea, batez ere Iparraldeko hizkeretan (Uria & Etxepare, 2011, 2012). Hiru iturritatik hartutako datu sintaktikoez baliatzen dira horretarako: hiztunei egindako galdetegietako erantzunak, literatur corpusetatik ateratako adibideak eta bestelako informazio-iturrietatik lortutakoak, adibidez, *Norantz* proiektutik (Oihartzabal, Epelde, Salaberria, 2009). Datu horiek guztiak gordetzeko, kudeatzeko eta kontsultatzeko aplikazioa da Basyque. Momentuz, galdetegi sintaktikoei eman zaie lehentasuna eta zenbait fenomeno linguistikoren inguruko datuak bildu dituzte horrela, esate baterako, datibo komunztadura, postposizio egiturak eta determinatzailearen erabilera. Galdetegietan askotariko metodologia erabili dute: frantsesetiko itzulpenak, hutsuneak betetzea, onarpen eta hobespen testak eta erabileraren inguruko galderak. BiVn ez bezala, galdekaturako hitzunik ez dira hizkuntzalaritzan adituak eta haien anonimotasuna gordetzen da. BiVren metodologiatik bereiziz, Basyquen datu emaleek eurek emandako erantzunak kontsultagai daude. Erantzunak, beraz, ez dira *bai/ez* baliokoak. Idatzizko erantzunekin batera, Basyquek erantzunen kokapen zehatza erakusten du mapa batean, BiVk eta WALSek bezalaxe.

Bestalde, *Ahotsak* eta *Euskalkiak* guneek, aldakortasun sintaktikoa ez ezik, aldakortasuna oro har eta aldakortasunaren alderdi soziala ere arakutzen dute. *Ahotsak*, lehen esan dugun bezala, Badihardugu Euskara Elkartearen (2003) proiektu bat da. Bere helburua, Euskal Herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak biltzea, sailkatzea eta zabaltzea da. Horretarako, herri askotako pertsona edadetuak elkarriketatu, eta elkarriketa horien audioak eta bideoak eskaintzen ditu sarean. Hainbat kasutan, gainera, elkarriketen idatzizko transkribaketak ere eskuragarri daude. Gune honek euskalkien inguruko informazioa ere ematen du, baita bilaketa lexikoak egiteko aukera ere, ale lexiko batek herriz herri duen aldakortasuna aztertzeko.

Euskalkiak gunea, azkenik, Koldo Zuazo, UPV/EHuko irakasle eta dialektologoaren egitasmoa da. Gune honetan euskararen eta euskalkien inguruko askotariko informazioa ematen da, hala nola, euskalkien sailkapena eta euskalki bakoitzaren gaineko informazio linguistikoa, literatura euskalkien eta euskara batuaren garapen historikoaren kontakizuna, baita euskara batua tokian tokiko beharretara egokitzeko argibideak ere. Horretaz gain, zenbait euskal hitzun ezagunen bideoak eskaintzen ditu guneak, non bakoitzak herri hizkera edota *tokiko batuera* erabiliz bere lanbidez edo zaletasunez hitz egiten duen.

4.3. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*

Sareko datu basea izan ez arren, sarean edozeinen eskura dago *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, Euskaltzaindiak 1984an abiarazi eta urtetan zehar ondu duen proiektua, euskararen aldakortasunari dagokionez egin den lan handienetako bat.

*EHHA*k 7 liburuki ditu eta bere galdesortak guztira 2.857 galdera ditu, lau eremu nagusitan bereizi direnak: 1) lexikoa (2.163 galdera), jokatzeko morfologia (595 galdera), joskera (62 galdera) eta joskera fonetika (37 galdera). Hortaz, BiVk darabiltzan eremuei dagokienez, hots, morfologia eta sintaxiari dagokienez, 657 galdera jasotzen ditu *EHHA*k. Morfologiari buruzko galderen artean, izen inflexioaren eta aditz inflexioaren eremukoak dira gehienak. Aditz inflexioari dagokionez, aditz laguntzaileen (*izan*, **edun*, **edin*, **ezan-en*) jokabidea jasotzen da, eta baita forma sintetikoa erakusten duten aditzen jokabidea ere (*joan*, *egon* edo *eduki*, *ekarri* eta *abarrena*). Orobat, alokutiboari ere eskaintzen zaio ezaugarri sorta xehe bat. Bestalde, *EHHA*k askotariko sintaxi gaiak darabiltza bere galdesortan: aditz komunztadurarekin zerikusia dutenak batzuk; zenbait aditzek, adibidez, *mintzatu* edo *urten/irten* aditzek sortzen dituzten konfigurazioekin beste batzuk, edo *behar* edo *nahi* bezalakok aditz modalekin zerikusia dutenak, beste askoren artean –ikus Charles Videgain & G. Aurrekoetxea (1993) xehetasunetarako–. Galdesorta alde batera, 145 lekutako datu emaileak elkarriketatuta dira, bat leku bakoitzeko, adinekoak, ‘sortzez eta familiaz tokian tokikoak, eta ahalaz herritik kanpoan gutxi ibiliak’ (*EHHA*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren ezaugarriak*, 1 liburukia, XXVI).

Kuantitaboki, beraz, bada alderik proiektu handi samar baten eta hasberria den beste proiektuaren artean. Kualitatiboki ere aldea dago, *EHHA*k BiVk albo batera utzitako eremuak arakatzen dituelako, hots, lexikoa eta fonetika, eta arakatzen dituen eremu komunetan, alegia, morfologian eta sintaxian ere, biek partekatzen dituzten ezaugarriak egon badauden arren, batez ere lanerako ikuspuntuak bereizten dituelako bata bestetik. Izan ere, BiVk lehentasuna eman die aldakortasun morfosintaktikoa ikuspuntu teoriko batetik arakatzeko esanguratsuak izan daitezkeen alderdiei eta ezaugarriei. Horrek ez du esan nahi teorikoki interesgarria dena enpirikoki ere ez denik, adibidez, datibo komunztaduraren galera (gurean nahiz *EHHA*n aztertu dena) interesgarria da bi alderdietatik begira, baina motibazio teorikoak beste ibilbide batetik garamatza, *EHHA*rena ez dena. Esaterako, ez da guretzat lehentasunezkoa jakitea zein forma zehatz hartzen ote duen izen batek bere oinarriaren ezaugarri morfonologikoen arabera, dena delako kasua edo postposizioa gaineratzen zaionean (lan hori neurri batean egin dagoelako, besteak beste *EHHA*ri esker). Beraz, guretzat lehentasunezkoa ez denak *EHHA*rentzat berebiziko garrantzia duela ikusiko du erabiltzaileak, batez ere atlasaren morfologiari buruzko atal osoa arakatzen duenean. Forma zehatza bera baino gehiago, eredu morfologikoa edo sintaktikoa da guk aurkitu nahi duguna beste edozeren gainetik. Hortaz, gaiak beharbada ez horrenbeste, baina dudarik gabe, ikuspuntuak bi proiektuok bereizten ditu.

Dena dela, esan beharra dago BiVk ez duela inongo asmorik, aldez aurretik edo bateratsu egindako beste inongo lanik ordezkatzeko, osatzeko baino. *EHHA* oso proiektu inportantea da aldakortasuna arakatu eta aztertu nahi duen edozeintzat, hizkuntzalaria izan zein izan ez. Gauza bera esan daiteke 4.2 atalean aztergai izan ditugun gainerako datu baseez ere. Gureak irudia osatu nahi du, ez besterik.


5. BIV: AIRETIKO IKUSPEGIA

Oraindik ere goiz samar den arren emaitzak arakatzen hasteko, BiV_k euskararen aldakortasunaren airetiko ikuspegia eskaintzen digu, eta badira begi-bistakoak diren hiru ezaugarri hemen azpimarratu nahi genituzkeenak. Lehenik eta behin, BiV_n jasotako ezaugarri batzuek dialektologia lanetan egotzi zaien banaketa bera edo oso antzekoa dute orain ere (5.1); bigarrenik, hainbat ezaugarrikeremu zabalagoa dute bibliografian oro har egotzen zaiena baino (5.2), eta hirugarren eta azkenik, badira Iparralde *v* Hegoalde, edo Ekialde *v* Mendebalde banaketa argia duten ezaugarriak (5.3). Horiek guztiak ikusiko ditugu labur ondoko lerroetan.

5.1. Egotzi zaien banaketa bera edo bertsua duten ezaugarriak


Ezaugarri morfosintaktiko batzuek dialektologia lanetan edota bestelako hizkuntzalaritza lanetan zehazten den banaketa geografiko bera edo oso antzekoa erakusten dute. Esate baterako, 8. *Datibo komunztaduraren galera* (gizonari liburua eman du), 10. *Numero komunztadura* (-z non-nahi), 15. *Lehenaldiko aditz jokatu*ko *absolutiboa* 3. *persona denean* (ø *v* z), 18. *Egitura ditransitiboetako aditz laguntzaileak* (-i, -ts, -ra), 27. *Soziatiboa* (-gaz *v* -kin) eta 42. *Perpaus osagarri faktiboak* (-e)na *v* -(e)la), beste batzuen artean.

Adibide gisa, har dezagun ezaugarri bat: 23. *Aspektu prospektiboaren marka* -(r)en *v* -ko). Geroaldiko aditzak hots, *egingo dugu* edo *eginen dugu* bezalakoak eraikitzeke, euskal hizkeretan bi marka daudela jasotzen da bibliografian (ikus esate baterako, Euskaltzaindia, 1997 [1987], Zuazo, 2008, Hualde, 2003): -(r)en eta -ko. -Ko zabalduen dagoen marka da, hots, mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan jasotzen dena; -(r)en, aldiz, ekialdeko hizkeretako ezaugarritzat hartzen da. Alabaina, ekialdeko hizkeren artean ere -(r)en-en erabilera ez dago aditz guztietan orokorturik: hizkera batzuetan partizipiozko forman -n amaiera duten aditzetan bakarrik hautatzen da -(r)en (-en kasu honetan). Euskaltzaindiaren arabera, zenbat eta ekialderago jo, -(r)en gero eta zabaldago egongo da aditz forma batzuetan eta -i/-tu amaieradun partizipioa duten aditzetan ere agertuko da. BiV_k banaketa hori bera berresten du.



4. irudia. 23. *Aspektu prospektiboaren marka* ezaugarriaren mapa. Hizkera erdua.

4. irudian ikus daitekeen bezala, ekialdeko hizkeretan, hau da, euskara nafarra, nafar-lapurtarra eta zuberotarra darabilten herri hizkera gehien-gehienetan, *eginen dugu* eredurako baiezkoko balioa dute. Literaturak zehaztu bezala, Urdiñarbeko hizkeran, *etorriren naiz* formarako ere baiezkoko balioa dute, aztertutako gainerako herri hizkeretan ez bezala.



5. irudia. 23. *Aspektu prospektiboaren marka ezaugarriaren mapa. Azpi-hizkera ereduak.*

5. irudiko mapan, aztertutako herri ia guztietan ageri da gorria, *-i* amaieradun *etorri* partizipioak ezin baitu *-en* prospektiboa hartu, ez bada *-ko*, baita *eginen dugu* duten herri hizkeretan ere. BiVn aztertutako herrien artetik ekialderen dagoenean baina, hots, Urdiñarben, *etorriren naiz* erabiltzen da.

5.2. Aitortu zaiena baino eremu handiagoa duten ezaugarriak

Bestalde, badira ezaugarri morfosintaktiko batzuk egotzen zaiena baino eremu handiagoa hartzen dutenak. Adibidez, 40. *Perifrasis progresiboak* (ibili, egon, jardun, erauntsi (*v* ari izan)) ezaugarrian, *egon* eta *ibili* uste baino zabalduago daudela ikus daiteke. Literaturan, progresiboa eraikitzeko, *egon* eta *ibili* erabiltzea (e.g. *karate ikasten dago* eta *karate ikasten dabil*) mendebaldeko hizkeren ezaugarritzat hartzen da (ikus, esate baterako, Zuazo, 2008, 77). BiVn, ordea, erdialdeko eta ekialdeko hainbat herri hizkeretan baiezkoko balioa du ezaugarriak, e.g. Urdiainen, Erreterian, Arizkuneren etab.

Honi dagokionez aipa genitzakeen beste ezaugarri batzuk dira, besteak beste, 2. *Osa garrien markapen bereizgarria* (ikusi nizun (*v* ikusi zintudan)), 24. *Aspektu markaren bikoizketa* (izandu da, egondu da, itzundu da) eta 26. *-tu eta aditzoina predikatu eratorrietan indikatibotik kanpo* (aberetu dadin (*v* abere dadin)). *Aspektu markaren bikoizketa* (24. ezaugarria) literaturan gutxi edo bat ere aipatzen ez den ezaugarria da (ikus Haddican eta Tsoulas, 2012), baina, BiVn ikus daitekeenez, hainbat tokitan lekukotzen den gertakaria da. Baiezko balioa jaso du ezaugarriak mendebaldeko sartaldeko hizkera batzuetan (e.g. Mungian, Loiu), erdialdeko sortaldeko hainbatetan (e.g. Hernani, Irun), euskara nafarreko gehienetan (e.g. Orbaizetan), baita nafar-lapurtarreko batzuetan ere (e.g. Oragarren, Ziburun).


Bestetik, *-tu* eta aditzoinaren banaketari dagokionez, ikus daiteke predikatu eratorrien kasuan indikatibotik kanpo partizipioa azaltzea (26. ezaugarria) euskal hizkeretan erabat zabalduta dagoen gertakaria dela. Bi herri hizkeretan izan ezik, aztertutako

beste herri hizkera guztietan lekukotzen da *aberetu dadin* forma. Beraz, behinik behin bada ere, ondoriozta genezake *-tu* aditz forma indikatibotik kanpo uste baino hedatuago dagoela, aditz eratorriei dagokienez behintzat (*aberetu* adibidez). Mendebaldeko eta erdialdeko hizkeretan ez ezik, ekialdeko hizkeretan ere aurki daiteke. Jakina, aditz eratorriaren lexikalizazio mailak eragina izango du ziurrenik hautu horretan, baina emaitza interesgarria da edozein kasutan ere.

5.3. Bi eremutan banatzen diren ezaugarriak: Iparralde *v* Hegoalde edo Ekialde *v* Mendebalde

Gatozen, azkenik, bi eremu nagusitan banatzen diren ezaugarrietara. Hizkeren arteko aldakortasunean, eremuen banaketa bi bereizten dira sarri askotan: Iparralde *v* Hegoalde, batetik, eta ekialde *v* mendebalde bestetik. Lehenari dagokionez, Zuazok (2008, 2010) aipatu izan duen bezala, euskal hizkerak banatzen edo desberdintzen dituen indar handienetako bat da, gaur egun, euskara bi estatutan banatuta egotea. Horrek dakar euskal hiztunak bi administrazio nagusitan bereizita egotea eta, garrantzitsuena dena, bi hizkuntza handirekin ukipen egoeran egotea. Hizkuntza ukipena aztertzea ez da ez lan honen ez datu basearen helburua, baina esanguratsua da ezaugarrietako batzuek Iparraldeari eta Hegoaldeari dagokienez erakusten duten banaketa argia, adibidez, 2. *Osagarrien markapen bereizgarria* (ikusi nizon) eta 4. *Arazi inakusatiboaren datibo markatzea* (etorrazazi dizute) ezaugarriek.

Beheko mapan ikus daitekeenez, osagarrien markapen bereizgarria (2. ezaugarria) gaztelaniarekin ukipen egoeran dauden herri hizkera ia guztietan lekukotzen da; frantsesarekin ukipen egoeran dauden hizkeren artean, aldiz, bakar batean ere ez da jasotzen.




6. irudia. 2. *Osagarrien markapen bereizgarria* ezaugarriaren mapa. Hizkera eredu.

Bestalde, 4. *Arazi inakusatiboaren datibo markatzea* ezaugarrian, ez dugu beharbada horren irudi argirik. Nolanahi ere den, badago bi eremu geografikoen artean banaketa argi samar bat. Erdialdeko hiru herri hizkeretan (Irunen, Hernanin eta Etxalekun) eta euskara nafarreko bitan (Orbaizetan eta Arbizun) izan ezik, gainerako Hegoaldeko herri hizkeretan *zuri etorrazazi/etorri eragin* eredurako baiezkotza balioa dute. Iparraldeko herri hizkeretan, ordea, batean ere ez.

Ekialde *v* mendebalde banaketaz den bezainbatean, bi ezaugarri aipatuko genituzke: 25. -tu *indikatibotik kanpo* (etorri daiten/dadin *v* etor dadin) eta 41. *Perpaus osagarri ez-faktikoak* -(e)n *v* -(e)la). 5.2. atalean adierazi dugunaren ildotik, indikatibotik kanpo, herri hizkera askotan -tu aditz forma erabiltzen da. Aditz horiek eratorriak ez direnean, esate baterako *etorri* predikatuaren kasuan, -tu formaren hedapena txikiagoa da aditza eratorria denean baino. Zehazki, mendebaldeko eta erdialdeko ia herri hizkera guztietan lekukotzen da *etorri dadin* edo *etorri daiten*, baita euskara nafarreko herri hizkera batean ere (Mezkiritzen), baina ez oro har, ekialdeko hizkeretan.

Azkenik, Ekialde *v* Mendebalde banaketa garbi erakusten duen beste ezaugarri bat da 41. *Perpaus osagarri ez-faktikoak* -(e)n *v* -(e)la).



7. irudia. 41. *Perpaus osagarri ez-faktikoak* ezaugarriaren mapa. Hizkera eredua.

Ezaugarri horri dagokion mapan ikus daitekeen bezala (7. irudia), perpaus ez-faktiboek -(e)n hartzen dute ekialdeko hizkera gehien-gehienetan (*uste dut zurea den*), erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretatik bereiziz, non *uste dut zurea dela* nagusi den.

6. ONDORIOAK ETA GERORA BEGIRA

BiV sortu berriak, 2016ko abenduaren 21ean argitaratutako bere lehen bertsioan, deskribatu eta eztabaidatu ditugun alderdi guztiak erakusten ditu: a) 44 ezaugarri morfosintaktiko jasotzen ditu 28 hizkeratan, eta ezaugarri horiek erakusten dituzten 155 adibide daude; b) *Hizkera eredua*, eta kasuan-kasuan, *Azpi-hizkera eredua* lekukotzen ote den zehazten da *bailez* balioei esker (*Hizkera eredua* lekukotu ezean, *Eredu orokorra* da jasotzen dena); c) 28 datu emaille izan ditugu, gehien-gehienak hizkuntza adituak eta hizkera jakin bateko jatorrizko hiztunak; d) bilaketak ezaugarrien arabera ez ezik, gako hitzen edota hizkeren arabera egin daitezke; eta e) balizko erabiltzailea hizkuntzalaritzan inizatua da, eta eremu zientifiko honetako metahizkuntza ez ezik, metodologia bera ere ezagutzen ditu.

Datuak lortzeko, 96 itemeko galdetegi bat erabili dugu, eta erantzunak *bailez* balioen arabera jaso ditugu, gure ikerketaren helburuak baitira batetik, (i) ezaugarri morfo-sintaktikoak hizkera jakinetan lekukotzen diren edo ez jakitea (aldakortasun lexikala edota morfofonologikoa alde batera utzita), eta bestetik (ii) hizkeren artean konparaketa egitea. Horrela, datu base hau sortzeko bi izan dira gure inspirazio iturri nagusiak: SSWL eta WALs. SSWLen munduko hizkuntzen artean aldakortasuna eragiten duten ezaugarri morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak jasotzen dira, eta munduko hizkuntzetan lekukotzen diren edo ez adierazten da *bai* edo *ez* balioen bidez. BiVk eredu hori jarraitu du. Alabaina, gure datu basean emaitzak mapetan bistaratzeko aukera eskaini dugu, SSWLen ez bezala, eta WALSen aukerarekin lerratuz. WALSen, baina, erantzunak askotarikoak dira (ez dira *bailez* baliokoak), eta hortaz, mapetako banaketa gurea baino konplexuagoa da.

Bestalde, lan honetan jaso ditugu BiVk sareko bestelako baliabideekin, hala nola, *Ahotsak*, *Euskalkiak*, *Basyque* eta *EHHA*ekin dituen antzekotasunak eta desberdintasunak. Basyque alde batera utzita, BiVen helburuak ez dira beste datu base edo webguneenak bezalakoak. Izan ere, BiV lan tresna tekniko bat da, batez ere hizkuntzalaritzan iniziatuak diren erabiltzaileei zuzendutakoa.

Lehen fase honetan lortu dugun airetiko ikuspuntutik, hiru argazki erakutsi nahi izan ditugu lan honetan. Horretarako, zenbait ezaugarri sailkatu ditugu hiru multzotan: lehenik, dialektologia lanetan egotzi zaien banaketa bera edo bertsua dutenak; bigarrenik, jasotako emaitzen arabera, uste baino zabalduago daudenak; eta hirugarrenik eta azkenik, Iparralde *ν* Hegoalde edo Ekialde *ν* Mendebalde banaketa argia dutenak.

Datu baseak begi bistako bi helburu ditu orain, epe laburrean: bat hizkerak gaineratzea da eta bestea ezaugarri gehiago jasotzea. Ez da orain gure asmoa esatea zenbat izango diren batzuk zein besteak, baina argi dago datu basearen oraingo egitura eta izaera gordeaz, hazkunde kuantitatiboa dagokiola honen ostean.

Epe laburreko helburuen artean dago, bestalde, bi hobekuntza tekniko egitea, batetik informazioa saretik jaisteko bidea eskaintzea erabiltzaileari, pdf gisa edo bestelako formatu batean, eta bestetik ezaugarriak edo ezaugarrien balioak konbinatzea, SSWLek eta WALSek eskaintzen duten gisara.

Gainerakoan, epe laburrean ere aurreikusten dugu datu base bibliografiko bat osatzea, erabiltzaileari lagungarria izango zaiolakoan ezaugarrien azterketan sakondu nahi badu. Datu base bibliografiko horrek, WALSen ez bezala, ez ditu datuen iturburu nagusiak bilduko; horren ordez, ezaugarrien xehetasunak aztertzeko bide berriak zabalduko dizkio. Alde horretatik, datu base bibliografiko hori ez da WALSen bezain garrantzitsua izango, baina BiVek eskaintzen duen datutegiaren osagarria izango da, dudarik gabe.

Luzera begirakoa da, aldiz, ezaugarrien deskribapenak baino zehatzagoak izango liratekeen kapitulu beregainak eskaintzea, WALSek eskaintzen dituenen modukoak.

Gerora ere izango da zer ikasi eta zer hobetu.

7. ERREFERENTZIAK

- Badihardugu Euskara Elkarteak. (2003). *Euskal Herriko Ahotsak*. Hemendik hartua: <https://www.ahotsak.eus/proiektuak/euskal-herriko-ahotsak>
- Comrie, B., Haspelmath, M. & Bickel B. (2015). *The Leipzig Glossing Rules*. Hemendik hartua: <https://www.eva.mpg.de/lingua/pdf/Glossing-Rules.pdf>
- Dryer, M. S. & Haspelmath, M. (arg.). (2013). *The World Atlas of Language Structures (WALS)*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemendik hartua: <http://wals.info/>
- Euskaltzaindia. (2008-2016). *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA)*. Bilbo: Euskaltzaindia. Hemendik hartua: http://www.euskaltzaindia.fr/index.php?option=com_content&view=article&id=565&Itemid=466&lang=eu (azken bisita 2017-03-05).
- Fernández, B., Berro, A., Orbegoza, I., Arriortua, A. & Landa, J. *Euskara Bariazioan/ Basque in Variation (BiV)*. UPV/EHU. Hemendik hartua: <http://basdisyn.net/Bas&Be/biv/>
- Hualde, J. I. (2016). On Basque dialects. In B. Fernández & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Microparameters in the grammar of Basque* (15-35 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Uria, L. & Etxepare, R. *Basyque, Euskal sintaxiaren datu-basea*. IKER UMR 5478 (CNRS) eta IXA Taldea. Hemendik hartua: <http://ixa2.si.ehu.es/atlas2/index.php?lang=eu>
- Koopman, H. (ed.). (2009). *Syntactic Structures of the World's Languages (SSWL)*. Hemendik hartua: <http://sswl.railsplayground.net/> (azken bisita 2017-03-05).
- Kortmann, B. & Lunkenheimer, K. (arg.). (2013). *The Electronic World Atlas of Varieties of English*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemendik hartua: <http://ewave-atlas.org> (azken bisita 2017-03-05).
- Mejías Bikandi, E. (1999). Unaccusative and antipassive constructions in Basque and Spanish. In J. Franco, A. Landa & J. Martín (arg.), *Grammatical analyses in Basque and Romance linguistics. Papers in honor of Mario Saltarelli*, (165-177 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins.
- Oihartzabal, B., Epelde, I. & Salaberria, J. (2009). *Norantz proiektua*. Hemendik hartua: <http://norantz.org/> (azken bisita 2017-03-05).
- Polinsky, M. (2013). Antipassive constructions. In M. S. Dryer & M. Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures (WALS)*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. Hemendik hartua: <http://wals.info/chapter/108> (azken bisita 2017-03-05).
- Uria, L. & Etxepare, R. (2011). Basyque: aplicación para el estudio de la variación sintáctica. *Revista Linguamática*, 3 (1), 35-44.
- Uria, L. & Etxepare, R. (2012). Hizkeren arteko aldakortasun sintaktikoa aztertzeke metodologiaren nondik norakoak: Basyque aplikazioa, *Lapurdum*, 16, 117-135.
- Videgain, Ch. & Aurrekoetxea, G. (1993). Euskal Herriko hizkuntza atlasa: galdesorta – cuestionario – questionnaire. *Euskera*, 38 (2. aldia), 529-647.
- Zuazo, K. (2004). *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2010). *El euskera y sus dialectos*. Irun: Alberdania.

Zuazo, K. (2013). *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

Zuazo, K. (2015). *Euskalkiak*. Interneten eskuragarri <http://euskalkiak.eus/> (azken bisita 2017-03-05).

8. ERANSKINA

BiVeko ezaugarriak:

Kasu eta komunztadura

1. Zenbait aditz inergatibotako subjektu absolutiboak: *borrokatu naiz* (v *dut*).
2. Osagarrien markapen bereizgarria: *ikusi nizun* (v *ikusi zintudan*).
3. Datibo osagarriak: *itxarongo dizut*, *diot* (v *itxarongo zaitut*, *dut*).
4. Arazi inakusatiboaren datibo markatzea: *etorrarazi dizute* (v *etorrarazi zaituzte*).
5. *Me-lui* murriztapena (*etorri natzaizu*).
6. Ergatiboaren lekualdatzearen neutralizazioa: *emon dostezun* (v *zeunstan*, *zenidan*).
7. Datiboaren Lekualdatzea: *eman nauzu* (v *eman didazu*).
8. Datibo komunztaduraren galera: *gizonari liburua eman du* (v *dio*).
9. Numero komunztaduraren galera: *sagararak jan du* (v *ditu*).
10. Numero komunztadura: *-z* non-nahi.
11. Numero komunztadura: *-e* (v *-te*).
12. Numero komunztadura: *-it* egitura ditransitiboetan (v *-zki*).
13. Alokutiboak.
14. Numero komunztadura alokutiboetan: *-zki* (v *-it*).
15. Lehenaldiko aditz jokatuak absolutiboa 3. pertsona denean: $\emptyset$ (v *z*).
16. *Eduki* eta *jakin*-en adizki sintetiko datibodunak: *dekotzu*, *dakitzu*.

Aditz laguntzailearen alternantzia

17. Forma (di)trantsitiboetako aditz laguntzaileen erroak indikatiboz kanpo: *-gi-* (v *-za-*).
18. Egitura ditransitiboetako aditz laguntzaileak (*-i*, *-ts*, *-ra*).
19. Egitura iragangaitz datibodunak: *zakidan*, *dakit* (v *zitzaidan*, *zait*).
20. *Izan*-en ordez **edun* inakusatibo datibodunekin: *gustatzen nau*, *gustatzen dizu* (v *zait*, *zaizu*).
21. Arazleak: *eragin* (v *arazi*).

Aspektua

22. Aspektu burutugabearen marka (*-ten*, *-etan*, *-tuten*, *-iten*, *-ketan*).
23. Aspektu prospektiboaren marka: *-(r)en* (v *-ko*).
24. Aspektu markaren bikoizketa: *izandu da*, *egondu da*, *itzundu da* (v *izan da*, *egon da*, *itzun da*).
25. *-tu* indikatibotik kanpo: *etorri daiten/dadin* (v *etor dadin*).
26. *-tu* v aditzoina predikatu eratorrietan indikatibotik kanpo: *aberetu dadin* (v *abere dadin*).

Postposizioak

27. Soziatiboa: *-gaz* (v *-kin*).
28. Soziatiboa: *-kilan* (v *-kin*).
29. Soziatibo/instrumental alternantzia: *-kin*, *-kilan* (v *-z*).
30. Onuraduna: *-tzako*, *-dako*, *-tako* (v *-tzat*).

Postposizioak (lokatiboak)

31. Lokatibo bizidunak: *baitan* (v *-gan*).
32. Ablatibo/partitibo alternantzia: *-(r)ik* (v *-tik*).
33. Adlatibo marka: *-rat/-lat/-alat* (v *-ra*).
34. Muga-adlatiboa: *ra gino* (v *-raino*).
35. Postposizioak denborazko modifikatzaileetan: instrumentala (*-z*) (v inesiboa (*-n*)).

Iragangaiztasuna eta iragankortasuna

36. Egoera-mailako aditz kopulatiboak: *izan* (v *egon*).
37. Jabetzaren adierazpena: *eduki*, *ukan* (v *izan*/**edun*).
38. *Ukan izan*-en ordez partizipio erresultatiboetan.
39. *Ari* progresiboa subjektu ergatibo eta **edun* aditz laguntzaile iragankorrarekin: *ari dut* (v *ari naiz*).
40. Perifrasi progresiboak: *ibili*, *egon jardun*, *erauntsi* (v *ari izan*).

Menderakuntza

41. Perpaus osagarri ez-faktiboak: *-(e)n* (v *-(e)la*).
42. Perpaus osagarri faktiboak: *-(e)na* (v *-(e)la*).
43. Bait- perpaus osagarrietan: *bait-* (v *-(e)la*).
44. Erlatibo aposiziozkoak izenordainekin: *zein...bait-* (v *-(e)n*).